

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4885

AGINDUA, 2012ko urriaren 16koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilpena sustatzeko diru-laguntzen deialdia egiten duena, pertsona gaixoen eta haien senideen kolektiboen bizi-kalitatea hobetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-arloan aritzen diren irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzat.

Osasun eta Kontsumo Sailaren kronikotasun-estrategiaren ildotik, agindu hau positibotzat eta ezinbestekotzat jotzen dugu, zertarako eta gaixotasunen bat duten pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzeko, pertsona gaixoen eta haien senideen kolektiboek osatutako irabazi-asmorik gabeko erakundeen lankidetzak sustatzeko –erakunde horien ezaugarriak eta esperientzia direla eta, elkarguneak osatzen dituzte–, komunikazioa hobetzeko eta pertsona gaixoei eta haien senideei hobeto laguntzeko.

Estrategia horretan esaten denez, oso garrantzitsua da informazio- eta komunikazio-teknologiak (IKT) erabiltzea euskal herritar guztien osasuna hobetzeko. Ildo horretatik, gaixoei haien osasunari buruzko informazio ematea xede duten proiektuak egitea bultzatu behar da, eta gaixo dauden pertsonen –egiazki gaixo daudenek zein gaixo egin daitezkeenek– beren artean eta besteekin dituzten harremanak bultzatu behar dira. Hori guztia sustatuko dugu kolektibo horien gizarte-webaren eta halako tresnen erabilera bultzatuz. Helburua da gaixoak are gehiago ahaldundzea, beren gaixotasunaren prozesuan lagunduta eta seguru senti daitezen. Halaber, IKTak erabiliz zer lortu duten aztertzea bultzatuko ditugu erakundeak.

Horregatik guztiagatik, laguntza emango diegu pertsona gaixoen eta haien senideen erakundeek egiten dituzten jardueri; betiere, helburu hauek lortzeko lagungarri badira:

- IKTetan oinarritutako sistemak sortzea, gaixoen bizi-kalitatea hobetzea xede dutenak.
- Pertsona gaixoen eta haien senideen erakundeei berritzen eta modernizatzen laguntzea, IKTak eguneroko bizitzan sartuz.
- Teknologia horiek erabiliz eta optimizatuz, pertsona gaixoen eta haien senideen erakundeak osasun-sistemeekin eta haren ildo estrategikoekin eraginkortasun handiagoz elkarlanean aritzera bultzatzea.

Halaber, hainbat erakunde biltzen dituzten proiektuak aurkeztea nahi dugu.

Horren ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN ARRUNTAK

1. artikulua.– Deialdiaren eremua eta xedea.

1.– Agindu honen helburua da informazio- eta komunikazio-teknologia digitalak garatzeko eta erabiltzeko laguntzen deialdia egitea. Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzat

dira laguntzak; pertsona gaixoen eta haien senideen kolektiboek osatutako erakundeentzat, hain zuzen. Bi laguntza mota emango dira:

A mota: erakunde onuradunetan, sare sozial formatuko komunikazio-sistema digital interaktiboak diagnostikatzeko, diseinatzeko, ezartzeko eta hedatzeko laguntzak. Sistema horiek lizentzia libreko kode irekiko softwarean garatuko dira, eta erakundeko partaide guztiak hartuko dituzte kontuan: bazkideak, boluntarioak, osasun-arloko profesionalak, hezitzaileak eta herritarrak, oro har.

B mota: ezarrita dauden sistema digitalen bitartez egiten diren jarduerak eta proposatutako helburuen lorpen-maila ebaluatzeko sistemak diseinatzeko eta aplikatzeko laguntzak.

2.– Deialdi honen bidez finantzatzeko diren jarduerak 2012an egin beharko dira. Gerora egiten diren ekintzen gastuak ezingo dira emandako laguntza justifikatzeko kontabilizatu, nahiz eta ekintza horiek agindu honetan jasotako baldintzak bete.

2. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Deialdi honetarako erabiliko diren baliabide ekonomikoen guztizko zenbatekoa 400.000 da (laurehun mila euro). 400.000 euro erabiliko dira A motatako laguntzen multzoan sartzen diren eskabideak finantzatzeko, eta 50.000 euro, B motatako laguntzen multzoan sartzen diren eskabideak finantzatzeko.

2.– Laguntza-mota bateko deialdia ebatzi ostean baliabide guztiak erabili ez badira, soberako baliabide horiek ebatzi gabeko beste laguntza-motaren zenbatekoa handitzeko erabili ahal izango dira. Hori gertatzen bada, Osasun Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza sailburuordeak ebazpen bat emango du, eta argitaratu egingo da.

3. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetan araututako diru-laguntzak jasotzeak ez du eragotziko Administrazio edo erakunde publiko zein pribatu berak edo beste batek jarduera hori bera finantzatzeko ematen dituen diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak eta baliabide ekonomikoak eskuratu ahal izatea. Laguntza bat baino gehiago jasoz gero, diru-laguntzen guztizko zenbatekoa ezingo da izan erakunde onuradunak egingo duen jardueraren kostua baino handiagoa.

2.– Lortutako diru-laguntzen baturaren guztizko zenbatekoa jarduerarako onartutako guztizko aurrekontua baino handiagoa bada, laguntza murriztu egingo da: zenbatean gainditzen duen aurrekontua, hainbatean.

4. artikulua.– Laguntzen onuradun izango diren erakundeen betebeharrak.

1.– Agindu honetako laguntzak eskuratu ahal izateko, erakunde eskatzaileek 1/1997 Dekretu Legegilean adierazitako betebeharrak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea amaitzean (1/1997 Dekretu Legegilea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena).

a) Legez eratuta egotea eta dagokien erregistroetan edo administrazio-erroldean behar bezala inskribatuta egotea, deialdi hau argitaratzen den eguna baino urtebete lehenagotik, gutxienez.

b) Gizarte-ekimeneko erakundeak izatea, pertsona gaixoen eta haien senideen kolektiboek osatuak izatea eta irabazi-asmorik ez izatea, forma juridikoa edozein dela ere (irabazi-asmorik gabeko entitateak, fundazioak, kooperatibak eta halakoak).

c) Erakundeen estatutuetan ezarritakoari jarraituz, gaixotasunen bat duten pertsonen edo/eta haien senideen bizi-kalitatea hobetzeko lan egitea, eta elkartzeko, komunikatzeko eta laguntza jasotzeko gune izatea pertsona horientzat.

d) Euskal Autonomia Erkidegoan jardutea, guztiz edo hein batean. Egoitza bat edo ordezkaritza bat izan beharko dute EAEn. Erakunde eskatzaileak bere erakundearen izaera juridikoa arautzen duten arauen eta legearen mende egongo dira.

2.– Agindu honen bidez araututako laguntzen deialdietan ezingo dute parte hartu zigor-arloko zehapen bat edo administrazio-zigor bat izateagatik diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu duten erakundeek, ezta horretarako ezgaitzen duten legezko debekuen eraginpean daudenek ere, sexu-diskriminazioagatik zigortutakoak barne, noiz eta dagokion zigorrak ezartzen duen epean.

3.– Orobat, Agindu honetan jasotako laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunek amaituta eduki beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza eta diru-laguntza publikoak itzultzeko prozedura nahiz prozedura zehatzaile oro, prozedura horiek oraindik izapidetzen ari badira.

4.– Agindu honetan jasotako diru-laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko, erakunde eskatzaileek zerga-obligazioak (Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan ezarritakoaren arabera) eta Gizarte Segurantzakoak bete behar dituzte.

5. artikulua.– Obligazio eta betebeharrak egiaztatzea.

1.– Organo kudeatzaileak behar bestetan eta erakunde eskatzaileen baimenik gabe egiaztatuko du, bai eta automatikoki egiaztatu ere, laguntzak eskatzen dituzten erakundeak dagokion Erregistroan inskribatuta daudela eta zerga-obligazioak bete dituztela, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauen Legean xedatutakoa betez.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauen Legea aplikatuz eta zinpeko aitorpen baten bidez, obligazio hauek egiaztatuko dira:

a) Edozein administrazio edo erakundek –publikoa zein pribatua izan– helburu berarako ematen dituen diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatuz eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri eman behar da.

b) Erakunde eskatzaileak egiaztatu behar du ez dagoela laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio- edo zigor-arloko zehapen baten pean, edo ez daukala horretarako legezko debekurik.

c) Erakunde eskatzaileak adierazi behar du egiazkoak direla eskabidean eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak, eta, diru-laguntza hauek jasotzeko, indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela.

Zinpeko adierazpen baten barruan edo harekin batera aurkeztzen diren datu, adierazpen eta dokumentuetan funtsezko zehaztasun-gabeziaren bat, faltsukeriaren bat edo ez-egiteren bat badago, prozedura bertan behera geldituko da, gertakari horiek jakiten diren unetik, horrek ekar ditzakeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe.

6. artikulua.– Diru-laguntza eskabideak aurkezteko epea eta modua.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2.– Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariari egin behar zaio eskaera, hark kudeatuko baititu laguntzak. Eskaera paperean aurkeztu beharko da. Inprimaki normalizatu bat bete beharko da, bai eta guztiz bete ere, eta leku hauetako batean aurkeztu: Osasun eta Kontsumo Sailaren Erregistro Nagusian, Zuzenean zerbitzuko bulegoetan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren lurralde-zuzendaritzetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako organoen aurrean.

3.– Erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskabidea eta hari atxikitako dokumentazioa. Halaber, erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabiliko da prozedura osoan, Euskararen Erabilpena arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 6.1 artikuluan xedatutakoa betez.

4.– Erakunde batek bi diru-laguntza motak eskatzen baditu, behin baino ez ditu bidaliko bi eskabideetan berdinak diren dokumentuak.

7. artikulua.– Eskabidean eta laguntzaren justifikazioan egindako akatsak zuzentzea.

1.– Diru-laguntzetarako eskabide-inprimakiak ez badira guztiz betetzen, edo haiekin batera ez bada adierazitako dokumentazioa aurkeztzen, erakunde eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio hutsegitea konpontzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko. Hori egin ezean, eskabidea ukatutzat joko dela adieraziko zaio. Administrazioak eskabide horiei buruzko berariazko ebazpen bat eman eta jakinarazi beharko du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntza justifikatzeko aurkeztzen den dokumentazioan hutsegiteren bat edo ez-egiteren bat egonez gero, erakundeari hamar eguneko epea emango zaio, jakinarazpena jaso eta biharamunean zenbatzen hasita, hutsegitea konpon dezan edo agindutako dokumentazioa aurkez dezan. Hutsegitea epe horretan eta adierazitako moduan konpondu ezean, delako hutsegitea ez da behar bezala justifikatutzat hartuko, eta agindu honetako 13. artikulua aplikatuko da.

8. artikulua.– Datuen babesa.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Agindu honetan jasotako diru-laguntzak eskatzean ematen diren datuak fitxategi automatizatu batean sartuko dira; «Ikerketa, ebaluazio sanitarioa eta garapen profesionala» deritzon datu pertsonalen fitxategian, hain zuzen. Fitxategi hori Osasun eta Kontsumo Sailaren ardurapean dago. 2011ko abenduaren 22ko Aginduak arautzen du fitxategi hori.

Fitxategi horretako datuak ezin zaizkie hirugarrenei edo beste erakundeei utzi, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak erakunde eskatzaileen laguntzak kudeatzeko baino ez ditu erabiliko. Nahi izanez gero, datuak eskuratu, zuzendu, baliogabetu, ezeztatu eta aurka egiteko eskubidea erabil daiteke. Horretarako, idazki bat bidali beharko zaio Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sailburuordetzako Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariari.

9. artikulua.– Eskabideen ebaluazioa.

1.– Aurkeztutako eskabideak ebaluatze aldera, Ebaluazio-batzorde bat osatuko da. Hauek izango dira batzordekideak: José Asúa Batarrita, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendaria –batzordeburua izango da–; Sebastian Martín Moreno, Irakaskuntza eta Garapen Profesionaleko zerbitziburua; eta Carlos Gárate Ibargüen, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzako I+G+B laguntzen kudeaketaren arduraduna –idazkaria izango da–.

Batzordeak, eskabideak guztiz ulertzeko, laguntza eskatu ahal izango die Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Zuzendaritzako langileei.

2.– Batzordeak laguntza-mota bakoitzarentzat ezarritako ebaluazio-irizpideak aplikatuko ditu; eskabideak ebaluatuko ditu, eta Osasun Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza sailburuari ebazpen-proposamen bat egingo dio.

3.– Ebaluazio-batzordeak eskatzaileen dokumentuak aztertuko ditu. Dokumentuen edukia kontuan hartuko du, bai eta epeak bete diren ere. Batzordeak, eskabideak behar bezala ebaluatzeko, egoki deritzon orori laguntza eskatu ahal izango dio.

Laguntzen organo kudeatzaileak eta Ebaluazio-batzordeak, aurkeztutako proiektua edo jarduera hobeto ulertzeko, beharrezkotzat jotzen duen informazio eta dokumentu osagarri guztia eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei.

4.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauen Legearen Testu Bateginaren 51.4 artikuluari jarraituz, lehiaketatzat joko da aurkeztutako eskabideak erkatuz diru-laguntzak emateko prozedura. Diru-laguntzak arautzen dituzten arauetan aurrez ezarritako balioespen-irizpideei jarraituz, eskabideen lehentasun-ordena ezarriko da, eta aipatutako irizpideen arabera balioespen handiena jaso dutenei esleituko zaizkie laguntzak.

10. artikulua.– Lehiaketa ebaztea.

1.– Osasun Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza sailburuordeak emango ditu laguntzak, ebazpen arrazoitu bidez, Ebaluazio-batzordearen proposamenari jarraituz.

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileei diru-laguntza jasoko duten ala ez jakinarazi beharrean, bi laguntza moten ebazpena Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu ahal izango da. Edonola ere, zuzendaritza-organismoak ebazpen bakar batean argitaratu ahal izango ditu bi laguntza motak.

3.– Ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osasun eta Kontsumo sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, aipatu dugun azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

4.– Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik bi hilabete igarotzen badira, eta ez bada ebazpenik eman espresuki, eskabideak ezetsitzat joko dira, lehen aipatu dugun azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, administrazioak espresuki ebazteko betebeharra badu ere.

11. artikulua.— Erakunde onuradunen betekizunak.

1.— Aplikatzekoak zaizkion indarreko araudiak eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuak adierazitako beste batzuk aparte utzi gabe, honako hauek bete beharko dituzte Agindu honetan jasotako diru-laguntzen erakunde onuradunek:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Hain zuzen, diru-laguntzak esleitzeko ebazpena jakinarazi eta hamar eguneko epean erakunde onuradunek ez badiote diru-laguntzari berariaz uko egiten, laguntza onartutzat joko da.

b) Diru-laguntzak emateko eskatutako eskakizunetakoren bati edo kontuan hartutako daturen bati eragiten dion edozein inguruabar aldatuz gero, edo helburu bererako edozein administrazioen edo erakunde publiko nahiz pribaturen diru-laguntza, laguntza, diru-sarrerak edo baliabideak jasoz gero, horren berri eman beharko zaio organo kudeatzaileari, idazki baten bidez. Erakunde onuradunak hilabete izango du, gehienez, aldaketa horren berri emateko, delako aldaketa gertatzen denetik zenbatzen hasita.

c) Diru-laguntza eman duen erakundeari frogatzea diru-laguntza emateko edo baliatzeko bete beharreko betekizunak eta baldintzak betetzen dituela, baita jarduera egin izana ere.

d) Jarduerak egiaztatzeko, ikuskatzeko, haien jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta kontrolatzeko prozeduretan, Osasun eta Kontsumo Sailari laguntzea, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargura jasotako laguntzei nahiz diru-laguntzei eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren berariazko araudiak aurreikusitakoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkion kontrol-jardueren mende jartzea.

e) Jasotako diru-laguntzak zertarako erabili diren egiaztatzen duten agiri guztiak gordetzea, bai eta elektronikoak ere, balizko egiaztatze- eta kontrol-jardueretarako.

f) Egiten diren agiri eta publizitate guztietan, Osasun eta Kontsumo Sailaren babesa dutela aipatu beharko dute. Aipamen hori Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan ezarritakoaren arabera txertatuko da (http://www.euskadi.net/id_corporativa/indice_c.htm).

12. artikulua.— Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira —betiere, diru-laguntzaren helburua betetzat jotzen bada— eta, hala badagokio, diru-laguntza horrekin batera Eusko Jaurlaritzak edo beste herri-administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako diru-laguntzaren bat edo laguntzaren bat jaso bada, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da. Horretarako, Osasun Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza sailburuak dagokion ebazpena emango du. Ebazpen horretan, emandako diru-laguntzen zenbatekoak doituko dira, diru-laguntzak emateko irizpideak eta mugak aplikatuz. Erakunde onuradunek soberako zenbatekoak itzuli beharko dituzte.

13. artikulua.— Baldintzak ez betetzea.

Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautzen du. Dekretu horretan ezarritakoaren arabera, erakunde onuradunak ez badiu betetzen baldintzak, ezarritako epeak, laguntzaren helburua edo, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53.1 eta 53.2 artikuluetan ezarritako eskakizunak (1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen Lege horren Testu Bateratua), behar diren

prozedura-tramiteak bideratu ostean laguntza jasotzeko eskubidea galduko du, eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari jasotako zenbatekoak eta zenbateko horien legezko interesak itzuli beharko dizkio. Horretaz gainera, bidezko diren beste prozedurei aurre egin beharko die. Aipatutako zenbatekoak diru-sarrera publikotzat joko dira, ondorio guztietarako.

14. artikulua.– Diruz lagundutako jardueraren jarraipena.

Osasun eta Kontsumo Sailak egoki deritzon ikuskapenak eta egiaztapenak egingo ditu, Agindu honetan jasotako arauak betetzen direla bermatzeko.

II. KAPITULUA

ERAKUNDE ONURADUNETAN, GIZARTE-SARE FORMATUKO KOMUNIKAZIO-SISTEMA DIGITAL INTERAKTIBOAK DIAGNOSTIKATZEKO, DISEINATZEKO, EZARTZEKO ETA HEDATZEKO LAGUNTZAK

15. artikulua.– Helburua.

Helburua da pertsona gaixoen eta haien senideen kolektiboek osatutako irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekintzako erakundeentzako laguntzen deialdia egitea, erakunde onuradunetan sare sozial formatuko komunikazio-sistema digital interaktiboak diagnostikatzeko, diseinatzeko, ezartzeko eta hedatzeko. Sistema horiek lizentzia libreko kode irekiko softwarean garatuko dira, eta erakundeko partaide guztiak hartuko dituzte kontuan: bazkideak, boluntarioak, osasun-arloko profesionalak, hezitzaileak eta herritarrak, oro har.

Helburua ez da IKTak (informazio- eta komunikazio-teknologiak) besterik gabe jartzea, baizik eta IKTak baliatzea gaixoen erakundeei (pertsona gaixoen eta haien senideen erakundeei) helburu hauek betetzen laguntzeko:

Gaixoen eta haien senideen informazio-, prestakuntza- eta laguntza-premiak modu eskuragarri, erraz eta orokor batean asetzea.

Bazkideen arteko komunikazioa erraztea.

Gaixoen erakundeen (gaixoen eta haien senideen erakundeen) eta haien erreferentziazko komunitatearen artean elkarrekintza-gune berriak sortzea.

Herritarrak eta erakundeak gaixoen erakundeetan (gaixoen eta haien senideen erakundeetan) sartzera bultzatzea.

Gaixoei eta haien antzeko egoeran daudenei beren gaixotasunaren eta eguneroko bilakaeraren jarraipena egiten laguntzea eta beren gaixotasuna modu proaktiboago eta eraginkorrago batean kudeatzeko aukera ematea.

16. artikulua.– Proiektuen betekizunak.

1.– Komunikazio-sistema digital bat sortzeko proiektuak aurkezten dituzten erakundeek finantzazioa jaso ahal izango dute, betiere betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Diagnostikoaren eta diseinuaren fasea azaltzen duen dokumentuan, xehetasun hauek jaso beharko dira gutxienez:

1) Abian jarriko den CMS plataformaren alderdi teknologikoen deskribapena. Plataforma horrek Wordpress (<http://wordpress.org/>) izango du oinarri, eta, sare sozialerako, Buddypress plugina (buddypress.org) izan beharko du. Sare soziala plataforma digitalera egokitu beharko da.

2) Plataformak zer eskakizun bete behar dituen aztertu beharko da. Horretarako, aholkularia eta gaixoen erakundea bildu egingo dira, eta plataforma horrek zer funtzionaltasun izango dituen mugatuko dute.

3) Pluginen edo/eta funtzionaltasunen zerrenda zehatza, bai eta erabiliko den metodologiarena eta, hala badagokio, 1.b) puntuko funtzionaltasunak abiarazteko beharrezkoa den metodologiarena ere.

4) Interfaze bisualak sartu beharko dira, zertarako eta plataformak ezarriko dituen ataletako bakoitzak zer interfaze bisual izango duen adierazteko.

5) Hauen profila adierazi beharko da:

Diseinatzaile grafikoa edo/eta interakzioa edo/eta eskuragarritasuna.

Proiektuaren koordinatzailea.

Garapen-taldea.

6) Garatze- eta abiarazte-faseen kronograma.

7) Kontrola eta bistaratzea egiteko erabiliko den metodologia.

8) Abian jartzeko eskakizunak.

9) Proiektua saiatzeko eta baliozkotzeko faseen definizioa.

10) Plataformaren erabiltzaileentzako eta administratzaileentzako prestakuntza-ikastaroaren gai-aurkibidea.

b) Ezartze- eta hedatze-faseetan, funtzionaltasun hauek bete beharko dira:

- Gaixotasunarekin lotutako edukiak argitaratzea eta partekatzea (artikuluak, esteka interesgarriak, bideoak...).

- Erabiltzaileei parte hartzeko eta elkarri eragiteko aukera ematea, betiere adituen (osasun-langileen/elkarteko kideen) gidaritzapean. Sare sozialeko modulu bat ezarriko da galderak egiteko eta zalantzei nahiz galderei erantzuteko.

- Tresnak eskura jartzea gaixotasunaren bilakaeraren eta tratamenduaren berri izateko, bai eta informazioa partekatzeko eta, aukeran, gaixoari autogestioa egiteko eta bere burua zaintzeko aukera emateko ere.

- Tresnak eskura jartzea gaixoen arteko laguntza errazteko, bai eta erakundearen eta gaixoaren arteko laguntza, senideen artekoa eta, aukeran, profesionalen eta gaixoaren artekoa ere.

- Erabiltzaile guztiak sar daitezkeen gune birtual batean, erakundeek zer zerbitzu eta zer informazio zehatz ematen dituzten argitaratzea.

- Tresna horretan, agente-koadro bat sartzeari, erabileraren estatistikak egiteko.

- Galdeketa egiteko aukera izatea, ebaluazioa errazteko.

- Funtzionaltasun bat sartzeari, erakundeak aukera izan dezan edukiak kudeatzeko.

2.– Halaber, sistemak finantziarioa jaso dezan, ezinbestekoa izango da sistema horretan konektore bat jartzea, Kronikoen Sarea plataforman (www.kronet.net) sartu ahal izateko.

3.– Plataformek gaztelaniaz eta euskaraz egon beharko dute erabiltzaileen eskura, edukiak edozein hizkuntzatan daudela ere.

17. artikulua.– Gastuak: diruz lagunduko direnak eta ez direnak.

Plataformarekin lotutako gastuen % 100 finantzatu ahal izango da, bai eta prozesua errazteko etorrarazitako kanpoko aholkularien laguntza ere. Halaber, plataforma abian jartzeko beharrezkoak diren inbertsio-gastuak ere finantzatu ahal izango dira, ekipo informatikoak salbu. Horretarako, beti bereizi beharko dira bi etapa hauetako bakoitzean sortzen diren gastuak:

a) Erakundearen jarduerak eta kideek eta laguntzaileek haien artean eta besteekin dituzten harremanak bideratzeko beharrezkoak diren funtzionaltasunen diagnostikoa eta diseinua.

b) Plataforma ezartzea eta hedatzea.

18. artikulua.– Eskabidea eta aurkeztu beharreko dokumentuak.

1.– Agindu honen 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztuko da eskabidea.

2.– Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Azalpen-txostena (III. eranskina). Txosten horretan, honen guztiaren berri eman beharko da: bat, erakundearen jarduerak eta kideek eta laguntzaileek haien artean eta besteekin dituzten harremanak bideratzeko beharrezkoak diren funtzionaltasunen diagnostikoa eta diseinua; bi, nola ezarri eta hedatuko den plataforma; eta hiru, zer gutxi gorabeherako aurrekontu izango duen plataforma abiarazteko faseetako bakoitzak.

b) Erakunde eskatzailearen datu orokorrak. Eskabide normalizatu bat bete beharko da horretarako (ikus Agindu honen IV. eranskina).

2010ean eranskin hori bete zuten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, betiere daturik aldatu ez bada.

Dokumentu horiek Osasun eta Kontsumo Saileko Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzara bidali beharko dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), paperean.

19. artikulua.– Eskabideak balioesteko irizpideak.

1.– 16.1.a) artikuluko xehetasunetako bat kontuan hartzen ez duten eskabideak edo 16.1.b) artikuluko funtzionaltasunak betetzen ez dituztenak ez dira balioetsiko.

2.– Jarraian, balioespen-irizpideak zehaztuko ditugu, eta irizpide bakoitzari zenbat puntu dagozkion esango dugu. Irizpide hauek erabiliko dira, hain zuzen, eskabideen lehentasun-ordena ezartzeko. Gehienez 100 puntu eskuratu ahal izango dira, eta, gutxienez, 50 puntu. 50 puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskabideek ez dute diru-laguntzarik jasoko:

a) Plataformaren eta informazio-sistemaren diseinua Agindu honetan ezarritako helburuetara egokitzea; plataforma hori erabilgarria izatea, hots, irisgarritasunari, ergonomiari eta nabigazioari dagokionez, elkarteko erabiltzeen ezaugarriak kontuan hartzea: 35 puntu gehienez.

b) Plataformaren edukiak hainbat kolektibok erabiltzea eta definitzea; kolektibo horietako bakoitzaren erabiltzaile kopurua: 20 puntu gehienez.

c) Beste erakunde batzuekin lankidetzan jardutea funtzionaltasunak diseinatzeko eta kideen arteko lankidetzak bultzatzeko: 25 puntu gehienez.

d) Ikus-entzunezko komunikaziorako aukeratutako teknika, egitura edo eredua berritzailea izatea: 20 puntu gehienez.

Puntu horretan, erakundearen testuinguruaren eta aholkularitza-enpresak egindako proposamen grafikoaren arteko lotura aztertuko da, sormen handikoa eta originala dela bermatzeko. Baztertu egingo dira aldeaz aurretik egindako eredu bisualetan oinarritutako proposamenak.

20. artikulua.– Laguntzen ordainketa.

Ematen diren laguntzen ordainketa zatika egingo da, era honetan:

1.– Lehenengo ordainketa, emango den zenbatekoaren % 50, berehala egingo da, hots, laguntzaren ebazpena onartzen eta argitaratzen denean; betiere, erakunde onuradunak, ebazpena egin eta hamar eguneko epean, laguntzari berariaz uko egiten ez badio.

Diagnostikoaren eta diseinuaren faseak amaitzean, erakunde onuradunak Osasun eta Kontsumo Sailaren Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzara bidaliko du bi fase horien garapenari buruzko txosten bat, bai eta izandako diru-sarreraren eta gastuen balantzea eta diru-laguntzaren kontura egindako ordainketen jatorrizko fakturak edo froga-balio baliokidea duten agiriak ere, merkataritza-trafiko juridikoan baliozkoak direnak edo administrazio-eraginkortasuna dutenak.

2.– Bigarren ordainketa egiteko, proiektuko fase guztiak burutu behar dira, eta dokumentu hauek aurkeztu behar dira, 2013ko otsailaren 28a baino lehenago:

a) Sistemaren garapenari eta ezarpenari buruzko txosten teknikoa eta, halakorik bada, erabiltzaileentzako liburuxka, bai eta ezarritako komunikazio-sistema digitalean sartzeko gakoak ere, amaierako produktua ikusteko.

b) Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako diru-sarreraren eta gastuen balantzea eta komunikazio-sistema digitala diagnostikatzeko, diseinatzeko, ezartzeko eta hedatzeko diru-laguntzaren kontura egindako ordainketen jatorrizko fakturak edo froga-balio baliokidea duten agiriak, merkataritza-trafiko juridikoan baliozkoak direnak edo administrazio-eraginkortasuna dutenak; betiere, faktura eta agiri horiek lehenago aurkeztu ez badira. Jatorrizko fakturak eta agiriak zigilatu egingo dira, gastuak zer diru-laguntza programari dagozkion jakiteko, eta gero, hala nahi izanez gero, itzuli egingo dira.

III. KAPITULUA

EZARRITA DAUDEN SISTEMA DIGITALAK ETA PROPOSATUTAKO HELBURUEN LORPEN-MAILA EBALUATZEKO LAGUNTZAK

21. artikulua.– Helburua.

Laguntza mota honen bidez finantzatuko dira Osasun eta Kontsumo Sailaren deialdien bitartez ezarritako komunikazio-sistema digitalak erabiltzen dituztenen onarpen-, eraginkortasun- eta gogobetetasun-maila ebaluatzeako sistemen diseinua eta aplikazioa, bai eta komunikazio-sistema digitala sortzean ezarritako helburuen lorpen-maila ere.

22. artikulua.– Diruz lagunduko diren gastuak.

Pertsona baten lana finantzatuko da. Pertsona hori erakundekoa bertakoa izango da, edo kanpokoa, aurreko artikuluan aipatutako ebaluazio-prozedurak egiteko kontratatuko dena. Orduko 49 euro ordainduko dira, eta pertsona horrek 25 orduz egingo du lan, gehienez.

23. artikulua.— Eskabidea eta aurkeztu beharreko dokumentuak.

1.— Agindu honen 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztuko da eskabidea.

2.— Eskabidearekin batera, ezarri nahi den ebaluazio-sistemari buruzko azalpen-txosten bat ere aurkeztu beharko da.

24. artikulua.— Balioespen-irizpideak.

Jarraian, balioespen-irizpideak zehaztuko ditugu, eta irizpide bakoitzari zenbat puntu dagozkion esango dugu. Irizpide hauek erabiliko dira, hain zuzen, eskabideen lehentasun-ordena ezartzeko. Gehienez 100 puntu eskuratu ahal izango dira, eta, gutxienez, 50 puntu. 50 puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskabideek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

Ebaluazio-prozeduraren kalitate metodologikoa: 35 puntu gehienez.

Ebaluazioaren arduradunak ebaluazio-prozesuen arloan izan duen prestakuntza eta esperientzia: 30 puntu gehienez.

Aurrekontua ezartzekoa den ebaluazio-sistemara egokitzea: 15 puntu gehienez.

Ebaluazio-sistema egokia izatea komunikazio-sistema digitala ebaluatzeko: 20 puntu gehienez.

25. artikulua.— Laguntzen ordainketa.

Ematen diren laguntzen ordainketa zatika egingo da, era honetan:

1.— Lehenengo ordainketa, emango den zenbatekoaren % 50, berehala egingo da, hots, laguntzaren ebazpena onartzen eta argitaratzen denean; betiere, erakunde onuradunak, ebazpena egin eta hamar eguneko epean, laguntzari berariaz uko egiten ez badio.

2.— Bigarren ordainketa egiteko, ebaluazio-sistema abian jarri behar da, eta dokumentu hauek aurkeztu behar dira, 2013ko otsailaren 28a baino lehenago:

Sortutako ebaluazio-sistemaren txosten tekniko deskribatzailea eta sistema hori diseinatzeak eta garatzeak ekarri dituen gastuen jatorrizko fakturak. Jatorrizko fakturak eta agiriak zigilatu egingo dira, gastuak zer diru-laguntza programari dagozkion jakiteko, eta gero, hala nahi izanez gero, itzuli egingo dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Agindu honek administrazio-bidea agortzen du. Hortaz, haren aurka, berraztertze errekurtsoa jar dakioka Osasun eta Kontsumo sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.— Deialdi honetan aurreikusi ez diren gauzetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena, aplikatuko da (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazketa).

Hirugarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 16a.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

I. ERANSKINA

Komunikazio-sistema digital interaktiboak diagnostikatzeko, diseinatzeko, ezartzeko eta hedatzeko laguntza-eskaera.

Izena: _____
Erakunde honetako legezko ordezkaria: _____
Kargua: _____
Erakundearen egoitza soziala. Udalerria: _____
Kalea: _____ zk.: _____ Posta-kodea: _____
Telefonoa: _____ Faxe: _____ Posta elektronikoa: _____

ADIERAZTEN DU:

Egin duen eskabideak bete egiten dituela Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 20... (e)koren (e)ko Aginduaren bidez egindako diru-laguntza deialdiko eskakizunak; diru-laguntza horien xedea da erakunde barruan bazkideentzako, laguntzaileentzako eta, oro har, interesa duten herritarrentzako komunikazio-sistema digital interaktiboak diagnostikatzeko, diseinatzeko, ezartzeko eta hedatzeko laguntzak ematea.

ADIERAZTEN DU:

Eskabide honekin batera aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta erakundeak ez duela inolako auzirik edo debekurik, diru-laguntza eta laguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.

ESKATZEN DU:

Zenbateko hau: _____ euro. Jarduera honetarako: _____

_____ (a)n, 2012ko _____ ren ____ (e)(a)n.

Erakundearen ordezkariaren sinadura eta erakunde eskatzailearen zigilua

EZAGUTZAREN GESTIOKO ETA EBALUAZIOKO ZUZENDARIA

Oharra: Agindu honetan jasotako diru-laguntzak eskatzean ematen diren datuak "ikerketa, ebaluazio sanitarioa eta garapen profesionala" deritzon fitxategi automatizatuan sartuko dira, eta fitxategi horren bidez tratatuko dira; hala ezartzen du 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak. Fitxategi horretako datuak ezin zaizkie hirugarrenei edo beste erakundeei utzi, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak erakunde eskatzaileen laguntzak kudeatzeko baino ez ditu erabiliko. Nahi izanez gero, datuak eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta ezeztatu ditzakezu, eta haien aurka egin dezakezu, hori egiteko eskubidea duzu eta. Horretarako, idazki bat bidali behar diozu Osasun eta Kontsumo Saileko Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Sailburuordetzako Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariari.

Eskatutako agiriren bat aurreko deialdiren batean edo deialdi honen ildoetako batean eman badiozu Eusko Jaurlaritzari, adierazi taula honetan noiz eta zer saili eta zuzendaritzari.

Agiria	Data	Saila eta zuzendaritza

II. ERANSKINA

EZARRITA DAUDEN SISTEMA DIGITALAK ETA PROPOSATUTAKO HELBURUEN LORPEN-MAILA
EBALUATZEKO DIRU-LAGUNTZETARAKO ESKAERA.

Izena: _____
Erakunde honetako legezko ordezkaria: _____
Kargua: _____
Erakundearen egoitza soziala. Udalerrria: _____
Kalea: _____ zk.: _____ Posta-kodea: _____
Telefonoa: _____ Faxe: _____ Posta elektronikoa: _____

ADIERAZTEN DU:

Ordezkatzen duen erakundeak bete egiten dituela Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 20... (e)koren (e)ko Aginduaren bidez egindako diru-laguntza deialdiko eskakizunak. Deialdi horren xedea da ezarrita dauden sistema digitalen bidez egiten diren jarduerak eta proposatutako helburuen lorpen-maila ebaluatzea xede duten sistemak diseinatzeko eta aplikatzeko laguntzak ematea.

ADIERAZTEN DU:

Eskabide honekin batera aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta erakundeak ez duela inolako auzirik edo debekurik, diru-laguntza eta laguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.

ESKATZEN DU:

Zenbateko hau: _____ euro. Jarduera honetarako:

_____ (a)n, 2012ko _____ ren ____ (e)(a)n.

Erakundearen ordezkariaren sinadura eta erakunde eskatzailearen zigilua

EZAGUTZAREN GESTIOKO ETA EBALUAZIOKO ZUZENDARIA

Oharra: Agindu honetan jasotako diru-laguntzak eskatzean ematen diren datuak "Ikerketa, ebaluazio sanitarioa eta garapen profesionala" deritzon fitxategi automatizatuan sartuko dira, eta fitxategi horren bidez tratatuko dira; hala ezartzen du 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak. Fitxategi horretako datuak ezin zaizkie hirugarrenei edo beste erakundeei utzi, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak erakunde eskatzaileen laguntzak kudeatzeko baino ez ditu erabiliko. Nahi izanez gero, datuak eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta ezeztatu ditzakezu, eta haien aurka egin dezakezu, hori egiteko eskubidea duzu eta. Horretarako, idazki bat bidali behar diozu Osasun eta Kontsumo Saileko Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Sailburuordetzako Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariari.

Eskatutako agiriren bat aurreko deialdiren batean edo deialdi honen ildoetako batean eman badiozu Eusko Jaurlaritzari, adierazi taula honetan noiz eta zer saili eta zuzendaritzari.

Agiria	Data	Saila eta zuzendaritza

III. ERANSKINA

Komunikazio-sistema digital interaktiboak diagnostikatzeko, diseinatzeko, ezartzeko eta hedatzeko laguntza-eskaeraren memoria.

ZER JARDUERA EGITEKO ESKATZEN DEN LAGUNTZA.

1.- Jardueraren izena.

2.- Deskribatu erabilitako parametroak. Zergatik da beharrezkoa komunikazio-sistema digital bat ezartzea?

3.- Justifikatu jarduera. Zer egoera konpondu nahi da jarduera honen bidez?

4.- Plataformaren diseinua.

5.- Komunikazio-sistema digitalaren ezaugarriak eta ezartze- eta hedatze-faseak.

6.- Nor baliatuko da, zuzenean nahiz zeharka, plataforma digital horretaz?

7.- Proiektuaren faseetako bakoitzaren aurrekontu zehatza.

Erakundearen ordezkariaren sinadura eta erakunde eskatzailearen zigilua.

IV. ERANSKINA

ESKABIDE-INPRIMAKIAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (paperean ez ezik, euskarri informatiko bidez ere bidali beharko da)

ERAKUNDEAREN DATUAK BILTZEKO ORRIA

Izena:		
Herria:		PK:
Helbidea:		
Telefona:	Helbide elektronikoa: Web-orrialdea:	Faxa:
Erregistroko inskripzio-zenbakia:		IFZ:
Helburu soziala:		
Harremanetarako arduraduna:		
Zenbat urte daramatza erakundeak zerbitzuak ematen? (Markatu aukera bat)	☐ 5 urte baino gutxiago	
	☐ 5 urtetik 10 urtera bitartean	
	☐ 10 urte baino gehiago	
	☐ Besterik (zehaztu)	
Zer eremutan ematen ditu zerbitzuak erakundeak? (Markatu aukera bat edo bat baino gehiago)	☐ Euskal Autonomia Erkidegoan	☐ Araban
		☐ Gipuzkoan
		☐ Bizkaian
	☐ Estatuan (Gainerako autonomia-erkidegoetan)	
	☐ Europan	
	☐ Nazioartean	

Lan-eremua eta xede-erakundeak	Lan-eremua	Berariazko xede-erakundeak
	☐ Gaixoen erakundeak eta gaixoentzako erakundeak	☐ Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuaren katalogoko zerbitzuak ematen dituzten erakundeak, eta beste erakunde batzuk ☐ Zerbitzu osagarriak dituzten erakundeak (informazioa, autolaguntzak, etab.)
	☐ Beste arlo batzuetako erakundeak, osasunarekin lotutako gaiak jorratzen dituztenak	☐ Gizarte-arlokoak ☐ Hezkuntza-arlokoak ☐ Lan-arlokoak ☐ Beste arlo batzuetakoak
Osasun-arloan soilik aritzen al da erakundea?	☐ Bai ☐ Ez	
Erantzuna ezezkoa bada, zer beste arlotan aritzen da?	☐ Gizarte-zerbitzuetan ☐ Hezkuntza-arloan ☐ Lan-arloan ☐ Beste arlo batzuetan	
Zer zerbitzu ematen ditu?	☐ Osasun-zerbitzuak	
	☐ Gizarte-zerbitzuak	
	☐ Prestakuntza	
	☐ Informazioa eta orientabidea	
	☐ Prebentzioa / Sentsibilizazioa	
	☐ Ikerketa eta argitalpenak	
	☐ Beste zerbitzu batzuk	
Zer kolektiborentzat dira erakundeak egiten dituen jarduerak? (Markatu aukera bat edo bat baino gehiago) Markatutako aukera bakoitzean, esan zenbat pertsonarentzat izan diren onuragarri erakundeak urte honetan egin dituen jarduerak.	☐ Pertsona gaixoentzat	
	☐ Senideentzat edo/eta zaintzaile informalentzat	
	☐ Profesionalentzat	
	☐ Herriarrentzat, oro har	
	☐ Beste kolektibo jakin batzuentzat	

Zer adin-tarteko pertsonentzat dira erakundeak egiten dituen jarduerak? (Markatu aukera bat edo bat baino gehiago)	☐ 65 urtetik gorakoentzat
	☐ 50 urtetik 64 urtera bitartekoentzat
	☐ 35 urtetik 49 urtera bitartekoentzat
	☐ 18 urtetik 34 urtera bitartekoentzat
	☐ Haurrentzat
Bazkide-kopurua:	Gaixoak:
	Senideak:
	Profesionalak:
	Beste batzuk:
Laguntzaile-kopurua:	☐ Langileak. Kopurua:
	☐ Laguntzaile profesionalak. Kopurua Zenbat ordu egiten dute lan? (hileko batez bestekoa)
	☐ Boluntarioak. Kopurua: Zenbat ordu egiten dute lan? (hileko batez bestekoa)
Erakundearen urteko aurrekontua: (azken ekitaldiari dagokiona)	☐ Egitura-gastuak:
	☐ Osasun-zerbitzuak:
	☐ Gizarte-zerbitzuak:
	☐ Prestakuntza:
	☐ Ikerketa eta argitalpenak:
	☐ Beste batzuk:

Finantziazio-iturriak (Markatu aukera bat edo bat baino gehiago)	☐ Udalaren laguntzak eta diru-laguntzak
	☐ Foru-aldundiaren laguntzak eta diru-laguntzak
	☐ Eusko Jaurlaritzaren laguntzak eta diru-laguntzak
	☐ Estatuko Gobernuaren laguntzak eta diru-laguntzak
	☐ Europako laguntzak eta diru-laguntzak
	☐ Nazioarteko laguntzak eta diru-laguntzak
	☐ Bazkideen kuota
	☐ Dohaintza pribatuak
	☐ Salmentak, eta zerbitzuak ematearen truk egindako kontratuak eta hitzarmenak
	☐ Beste batzuk:
Zuzendaritza-batzordeko kideak: Izen-abizenak:	Kargua:

³ Adierazi zenbat boluntario aritzen diren erakundean, eta esan zenbat ordu lan egin duten, batez bestean, datuak bete diren hilean.

EZAGUTZAREN GESTIOKO ETA EBALUAZIOKO ZUZENDARIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, jakinarazten dizugu inprimaki honetan bete dituzun datuak «Laguntzak jasotzen dituzten erakundeak» deritzon fitxategian sartuko ditugula. Fitxategi hori Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzaren ardurapean dago. Fitxategi horren helburua da irabazi-asmorik gabeko erakundeei ematen zaizkien diru-laguntzak kudeatzea.

Nahi izanez gero, datuak eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta ezeztatu ditzakezu, eta haien aurka egin dezakezu, hori egiteko eskubidea duzu eta. Horretarako, idazki bat bidali behar duzu Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).